

PENTSATZEKO UKENDUA

Osagaiak:

- Lau txerri hanka.
- Bi pagauso hego.
- 2 litro arratoi odola.
- Suge baten buztana.
- Txakur baten bi luma.
- Zaldi baten bi hego.

Ukendu nola prestatu:

Etxean matatxerri egiten denean, txerriari lau hankak kendu behar zaizkio eta gero txerriaren beste zatiak zakarrontzira bota. Ehizatu dituzun bi pagausoren hegoak hartu; lumak kendu gabe Arratoiaren odolak arratoi batena bakarrik izan behar du. Suge normal baten buztana. Beste osagaiak supermerkatuan erosi behar dira.

Osagai guztiak ditugunean, urez betetako ontzi batean sartu behar dira. Osagaiak ontzian daudenean egosten jarri behar dira. Bost minututan egosten utzi behar da eta gero sutatik kendu. Sutatik kentzean hogeit bira eman behar zaizkio erlojuaren orratzen norantzan. Hogeit bira eman ondoren hitz magikoak esan behar dira. Hitz magikoak esanda ukendua prestatuta dago.

Ukendua nola erabili:

Ukendua oso erraz erabiltzen da. Buruan eman behar duzu; baina eragina izateko hogeita lau ordu pasatu behar dira.